


MAHAI INGURUA
GABRIEL ARESTIREN EKARPENA ETA ERAGINA
EUSKAL LITERATURAN



Andolin Eguzkitza. Bilbon orain egiten diren hizkuntzen artean, euskara eta gaztelaniaren artean –eta *orain* diot, gaztelania kronologikoki eta sozialki guztiz berria delako Bizkaiko hiri nagusian– harremanak ez dira egundaino lar gozoak izan. Azkenengo berrehun urteak gutxienez, edozein izan datekeela norbanako bakoitzaren barnekontzientzia eta jarrera, zapalkuntza-urteak eta sufrimendu-urteak izan baitira Bilboko eta, oro har, gure hiri honetara hurbildu beharrean egon den Bizkaiko euskaldunarentzat. Aspalditxo honetan euskara guti entzuten zen ingurune hauotan. Gaur egun, ostera, gauzak aldatzen ari dira, eta onerako aldatzen. Gaur egun, eta bere lurrean, ez inorenean, euskara hasi baita ostera ere bere burua jaso-

tzen. Izan ere, horregatik ari gara Gabriel Aresti Segurola gogoratzen, Gabriel Aresti izan baita –bilbotar argi eta zolia bera– gure hiri honen historiako seme-alabetan, euskaldunen hizkuntzaren alde gehientsu egin duenatariko bat.

Gabriel Aresti Segurolak gurasoek eman ez ziotena, eta inguruak eta ingurukoek eman gura izan ez ziotena, askok gorrotoz eta irriez ere, hartu baitzuen lurretik eta bere ahalegin latzez biblioteketatik, eta Etxeparek zioen modura *goien gradura* jaso: euskaldunon hizkuntza ederra, euskaldunon altxorrik preziatuena, euskara. Eta bilbotar guztien aurrean duin bihurtu zuen, errespetuzko.

Ez dugu zertan aipatu beharrik Gabriel Arestik euskal literaturan ukan duen garrantzia, hain baita ezagun. Eta halaz eta guztiz ere, ez da desegokia berriro ere aita dezagun.

Alde batetik, Mirande eta Txillardegirekin batera, gerrosteko euskal literaturari ate berriak zabaldu zizkion, mundu modernoaren ateak. Eta bestetik euskararen batasunaren aldeko sutsu, euskarari berari eman zion mundu moderno honetara ekantzeko nahiko indar eta kemen, aipaturiko idazleekin batera eta era berean Mitxelena eta bilbotarra ere den Xabier Kintana bezalakoekin, euskarari literatur batasuna eman baitzion, alegia, euskaldun guztioi, bilbotar, bizkaitar, giputz, Iruñeko, lapurtar edo Garaziko, guztion lokarri den literatur hizkuntza eman zigun. Edo beharbada eman ziguten esan behar dukegu. Gaur egungo Euskal Herria etorkizuneko proiektu gauzagarri bihurtu zigun. Edo agian bihurtu zigutela esan behar dukegu, herri bati, euskaldunon herriari, literatur-hizkuntza bakarra eman zigutela, azken baten etorkizunerako esperantzarik ederrena eman zigutela.

Baina Gabriel hori baino gehiago izan zen.

Gabriel poeta izan baitzen oroz lehen eta denen gainetik.

Herri xehearen poeta batetik, baina bestetik hain herritar ez den poesiari uko ez dion olerkaria. Ondoko koplak sor zezakeen poeta:

Poeta naizenez gero
ez dut zerurik espero
bederatzi koplak ditut
lau zuhur eta bost ero

eta era berean Elliot itzuli eta *Maldan behera* bezalako poema luzea idatzi, Europako literaturan seguru asko egin den azkenetariko bat.

Eta ipuingile. Eta antzerkigile. Eta artikulugile. Eta azkenez itzultzaile. Batzuetan besteetan baino hobea, baina beti ere sotil eta aberats. Beraren antzerkiak irakurtzeko dira gehiago taularatuak izateko baino. Baina nork ez dauzka gogoan beraren Margarita Nafarroakoaren *Dekameron Tipia*-ren itzulpena, edo literaturaz batez ere egindako mintzaldi ederrak.

Gizon on horren ohorez ari gara hemen, berak zorrotz igarri zuen bezala, norbaitek Gabriel Aresti kalean bere koinatarekin ibiltzeko asturu gaitzari ezin ihes egin liezaiokeen idazle eta euskaldun handiaren ohorez.

Iñaki Aldekoa. Arestik ez du euskararik gabeko aberririk nahi. Arestik ez du sinistuko euskararik ez eta Euskalerrriaren izpiritualitate abstraktuetan trabatuta, euskal esentziaz galde egiten dutenengan. Inoiz ez bezala esan daiteke Arestiren kasuan euskara zela bere aberria, eta beste guztia blaga hutsa.

Arestiren herria, hala ere, ez da gauetik goizera sor litekeen kontua, herrigintzak bere langile andana luzea behar. Arestiren ibilbide osoan zehar garbi azaltzen da elkarlan horren beharra, herrigintzaren proletario izatearen kontzientzia, nahiz eta berezia izan sentimendu hori Arestirengan. Herrigintza horretan bere aurretik euskararen langile izan direnen artean Axular dugu printzea: “Axularren ohorean betirako / labraturik gera dadin / euskal harria”. Baita honako hau ere: “Zuek / laurok / Lizardi / Orixe / Lauaxeta / Loramendi / nire barrenean kimacen zarazte / are oraindik / harrizko herri bat zuen inguruan / eta zuek laurok / konturatu ere / ez zinezten / egin...” (*Euskal Harria*, 144. or.). Gorazarreak ugariak dira bi liburu nagusiotan; ikusi besterik ez dago *Harri eta Herriko* “eskeintzak” izeneko atala, eta H. H.an agertzen diren aipamen ugariak. Lehen liburuan (H. H.) bada, hala ere, hurrengoetan ahulduxa aurkituko dugun konbentzimendu eta baikortasunik. Zerekiko konbentzimendu eta itxaropena? Gizakikoa eta, ondorioz, herriarekikoa. Nire ustez, bi eustarri horiek edozein poeta sozialen oinarrian daudenak dira. Ez dugu ahaztu behar ikuspegi horren atzean susma daitekeen humanismo zaharraren bultzada. Humanismoaren tradiziotik datorrena da Arestik bere hitzari txertatu nahi dion zintzotasun tonu hori, giza-kontzientzia ernaldu nahi hori, norbere barneko egjari deiadar egite hori; eta horretan guztian ez al dago Aresti beste bi bilbotar ospetsuren alboan? Nolabaiteko autentikotasunaren trazaz janzten den zintzotasun zaharberitu horretan ez al zituen Otero eta Unamuno lagun izan? Azken finean, humanismo ororen altzoan garatutako konbentzimendua honako hau besterik ez duzu: gizakiarengan fede izan! Arestiren balore taula umilenean ere horixe bera da

nagusi, gizakiarenganako gainezkako fedea eta, ondorioz, herriarenganako orobat. Poetak anaitasun berri bat bizi nahi luke bere inguruarekin, eta anaitasun horretantxe taupadatu. Poetak ez du jada nahikoa bere barneko lanturu betikoaz, poetak kalera atera nahi luke, eta jende artean bere burua ikusi, kanpoko jende horren hurbiltasuna sentitu: poetak ez du soilik bere burua kontagai, inguruko gizaki haragizkoa baizik: nitik gura etengabeko jautsian ari da.

Poetak inoiz ez bezalako konfidantza du poesian: poesiak eragin dezake aldatetik gizarte mailan; Celayarentzat bezala, poesia gizartea hobetzeko eta aldatzeko tresna da. Gizaki ustez haragizko horren aurkikuntzarekin batera, poetak hitzarekin duen betebeharrak ohartua da, halaber, Aresti, hitza bihurtu zaio poetari giza-ekintzaren eta giza-pizkundearen tresna. Poetaren mezuak, beraz, gardentasun osoz zeharkatu beharko ditu liburuko orriak edo gizabanakoaren belarriak. Ikusi bestela zein bultzada izugarria izan zuen kantagintzak Euskal Herrian 60-70 urte bitartean. Jadanik ez da sinisten Zarathustraren edo Jesukristoren irtenbide magikoetan, hitzaren mezu eta eragin suspertzailean bai, ordea, hitza bera baita gizaki egiten gaituen, eta poeta, aginduz jantzirik datorrena, super-gizaki. Horren arabera ez legoke bi poeta klase besterik: prestua (egia) eta doilorra (gezurra). Biblian bezala, apostolatu berri honetan ere errepika daitezke honako hitzok: “Hasiara batean hitza izan zen”. Eta hitzarekin dago gizakia. Arestik dio: “Hemen dago gizona. Paper / honetan dago. Nago!” (H. H., 11. or.). W. Whitman poeta ipar-amerikar bulartsuak ere beste hainbeste zioen: “Laguna, hau ez duzu liburua orriok ukitzen dituenak gizaki bat ukitzen du” (*Leaves of Grass*, 649. or.). Horregatik, Oteroren kasuan bezala, Arestirenetik ere “egia ez den hitz bat bera ere ez da nire ezpainetatik aterako”. Harri eta Herri liburuan halako nahi adina adibide aurki daiteke.

Poetak hitz klaroaren alde (“euskara klaroa”) egingo du apustu. Poetak bizi zuen garai historikoak narratibitatez hezurtutako hitza eskatzen zuen; ez zuen inondik ere nahi Arestiren aurreko garai mitiko-sinbolikoetako lengoia ilunik. Poetak ihes egin nahi lioke bakardadeari, herri urratsak bizi zuen anaitasun berriaren egarri zen poeta. Gertatu ote halakorik erabat Arestirengan? Batetik, parte hartu nahi luke epika berrian. Izan ere, ez al da egia iraultzaren erakarmen sutsua medio epika eraberritu baten animoa hedatua zela Mendebalean? Epika da kolektibotasun eta balio hierarkia, gizabanakoaren barnekoitasunak itzali eta kanpoalderako joera nagusitzen da. Munduak, bere osotasunean, barne zentzu bat du. Ez al zigun Orixe horrelaxe kontatu bere mundua, nahiz eta epika sozial horretatik urrun ibili; harena bai izan zela klasikoaren epikotasun kristautuaren ildoak urratzea. Hemen ez dago halakorik, epika berriaren eragilea klaseetan banandutako gizakumea izango

baita, klase zatiketa gainditzeko ahalegin utopiko baina zeharo historikoa; horrek guztiak poeta beste giza-multzoekin elkarlanean jartzen du: “Jesukristok pobre deitu zidan, eta Marxek proletario; nire klasearen eskubideak defenditu behar ditut; eta nire herri artean defenditu behar ditut... Eta badakizue, azken konklusio batean, Jesukristoren dotrina eta Marxena berdinak direla... Kristau-herria pobreak gara. Guretzat eskribitu zuen Marxek bere *Das Kapital*.” (G. A. *Hitzaldiak*, 89. or.).

Arestik biluztu egin zuen bere poesia Literatura trazatik, *ars poeticaren* mandatu-tuetatik aske utziz; nahiago izan zuen bere hitzak, eguneroko gizakiarenak, beste maila bat iritsi zezan, “Majoria handi batena” izatea, alegia. Poetaren mandatu profetikoa eta biblikoaren ekarri hori humanismoaren itsaso zabalean aurkitzen du non pausatua, eta sasoi hartan itsasotik iritsitako deiadarrak iraultzaren gonbitea zekarren.

Alabaina, badago zerbait Arestirengan Bilboko zulotik ihes egiten uzten ez diona. Eta Bilbo esaten dudanean, aurreko utopia, ilusio eta esperantza guztien ukazio ere baden bizilekuaz ari naiz (“Hau ez da utopia”, E. H., 23. or.). Arestik ez zuen hartu-eman gozorik bizi izan bere Bilborekin. *Harri eta Herrin*, oraindik poeta umore eta sasoi onean egonik, ez du erabat baztertuko; horixe izango da aldarte oneko euskaldun berri baten bizilekua, jende kanpotarra eta hirira lan bila etorritako baserritar askoren bizileku amankomuna. Harrigarria da nola eduki zezakeen Arestik hain animo handia, nola egin zezakeen, berak egin zuen moduan, euskararen alde, non eta Bilbon, euskararentzako desertu bat baino ez zen hirian. Gauza bat baino gehiagotan izan genuen aitzindari, baina Mirandek Parisen eta Arestik Bilbon jardun zuten moduan jardutea... Maiz pentsatu izan dut egon behar duela, nahitaez, ihes egiten didan mekanismo psikologikoren bat Arestiren kasu hori ulertzeko, hain harro, hain sasoi, hain animoso, non eta desertuan! Beharbada, hortixe heldu beharko litzaioke San Joan Bautistarekin izan zuen idilioaren hariari. Profetak gora eta Jesukristo behera, ez dago ez beste poetarik, ez idazlerik, Orixe bera ere ez, halako marmar biblikoan jardungo zuenik. Ez dago dudarik ezbeharrean eta egoera zailtan hazi egiten zela Aresti. Ez dago dudarik, ezta ere, inozentzia indar harrigarria ere behar zuela hark jardun moduan jarduteko: *Maldan Beheran*, Jerusalem / Babilonia / Bilbo bekatarira jaitsi eta euskara “dontzeila” (Miren) hankapean zebilen murruren aurka ate joka “konberti zaitezte” aldarrika aritzeko. Edo, beharbada, gihar psikologikoen egoera larri horixe behar-beharrezkoa dute behar adinako indar-esperantza argiz hornitzeko. Profeta zahar guztiek bizi izan dute beren basamortu sasoi, argia agertu aurretik. Horretan ere izan zuen Unamunoren antzik. Aresti ez zen erraz desesperantzan eta desilusioan eroriko, Zarathustra eta

Kristoren irtenbideak bazterrean utzirik, aurkituko dute haren indar iturriek beste norabiderik: nekealdi berria iraultza duen Jesukristo bat asmatu zuen, Kristo eta Lenin elkarlanean.

Ibilbide luze horretan, baina, Bilbo erraldoia izan zuen aurrez aurre; eta hango kale-eztarri ugarietan galdu ziren poetaren aldarri eta antsiak; poetaren gorputza Bilboko kale horietan zebilen bitartean, haren arima Arantzazu, Gorbeia eta Arraten gora. Arestik ezin izan zuen inoiz zeharo hautsi ohiturazko nobelatik gerraurreko tradizioaraino eta areago iraun zuen imajinarioaren antolamendurik: GAIKALDEA (mendi tantaia, euskara garbia, eguzki betea, zeru hurbila, tovaritx...) eta BEHEKALDEA ("Bilboko kaleak, osin ilun... zorritasunez kutsa litekeen infernu basatza horretan, non aingeruen arimak ere likistuko lirartekeen unea, deabru guztien paradisia; mota guztietako makur, bizio eta bekatuak, karitate eta krimenaren kale itsusiak: lur usteldua", diruaren tiraniapean dirauen infernua).

Poetaren barne idearioan bi kezka ziren nagusi: euskararen galera eta burgesia diruzalea. Gaikaldea bi kezka horiez libro izango da, "Axularren begia Gorbeian" baitago: gaikaldea Axularren itzalpean bizi den erresuma da. Behekaldea, berriz, diruaren erresuma lohia eta gazteleratutako hispanidatea.

Egoera horretatik irteteko modu bakarra iraultza izango da Arestirentzat: euskararekin batera giza ohorea ere salbatu. Arestiren konpromezua maila berekoa al da bi eskakizun horiei dagokienez? Baietz dirudi, 1966an, Hernanin Arestik eman zuen hitzaldiari erreparatzen badiogu:

"Azken fin batean, hemengo estrukturak aldacen ez diren bitartean, biok izanen gara euskalzale; baina beharbada hura, nire lagun hori, okasioa hola suertatzen baldin bada, hura izanen da patroia, eta ni jornalekoa; hura aberax eta ni pobre; hura burges eta ni proletario..." (*Hitzaldiak*, 91. or.).

Ikus daiteke hor, ezkutuka ibili gabe, zein garbi jarri dizkigun mahai gainean bere poematikaren programa eta mandatuak. Eta bere armak ere erakutsiko dizkigu:

"Herri hau apurtuko nuke, ea horrela itoginaren (burgesia) azpitik salbacen dudan, irudicen baizait askotan beira fin bat dela, kristal mehe bat, bibolin baten bibrazioak apurtuko lukeena. Askotan ez dakit zer den nire poesia: mailu bat ala biola bat". (*Hitzaldiak*, 91. or.).

Seguru poetaren umorearen arabera dela hori. Baina programa horixe medio, eta poetaren barne-zatidura hori iraultzaren igurtziz gozatu zain, Arestiren bizitza ez zen atsegina izan. Bere umore osasuntsuak eta, sarri, ironiak asko lagundu bazion ere, ez zen nahikoa bere barne lanturu eta garrasi asegitza estaltzeko adinakoa.

Batetik ideologia, bestetik sentimendua; batean eguneroko bizimodua, bestean egoera animikoa; ideologikoki problemarik sortu beharko ez liokeen ziutatea, ziutatea ez baita problema izan marxismoarentzat, Arestirentzat jasan ezinezko “zimaurretgia” zen. Bilboko infernu zikin hori pintatzeko orduan, lagun izan zuen T. S. Elioten Londresko infernu tikiaren iruditeria, Dante barne, jakina. Eta horixe da poetaren etxe fisikoa eta familia erroturik dauzkan ingurune zimaurtsua: “Zuri / Espainiako andrea / zimaurretan aurkitutako lili apala” (Meliri)”. Beste muturrean dago, berriz, bere ametsaren eta euskararen utopia: gaikaldea. Ez dut uste gaikalde hori Arantzazura, Arratera eta Gorbealara soilik zabaltzen denik; nire irudipenean, izen horiek metonimia maila batean ulertu beharko lirateke.



Arestiren bizitza ere halaxe joan zen, errealitate eta ametsaren artean, errealitate eta utopiaren artean; ba ote da, hala ere, poetarik modernitatean, bestelakorik ezagutu duenik? Arestiren etxea edozeinena bezain konkretua izanda ere, amestu zuenaren defentsa amorratu eta kixoteskoa eskaini zigun. Utopiaren ukazioa Bilbo zen.

Arestik beti eraman zuen bere barnean euskal lurraren –egiazko Euskal Herriaren– eta Bilbo Gaztelerrikoaren arteko etendura. Bera izan zen, euskara kontuetan lehena izan ez arren, euskara minak dramatismo puntu larri horretaraino ahotsa modularazi zion poeta bilbotar handiena. Euskararen umezurtzia inork baino hara-

gituago bizi izan zuen Arestik; eta, bere alboan, gipuzkoarrak euskararen solo propialean bizi nonbait. Poetak, berriz, ezin aurkitu Bilbon euskal solorik. Billbotik kanpora nork jakin. Eta zertarako abertzaletasun gazteleratu bat? Utikan halakorik. Hori xe da Arestiren marmara etengabea igartzen dudana lanturu isila, haren ondoez eta arrenkurak klabe horretantxe uler daitezke.

(Nire *Zirkuluaren butsmina* (Alberdania, 1993) liburutik jasotako pasadizoak).

Ibon Sarasola. Andolinek proposatu zigun banaketan, nork zertaz hitz egingo zuen esan zigunean, niri batez ere Gabriel Arestiren euskarari buruz hitz egitea egokitu zitzaidan. Joxek ukitu ditu zenbait puntu; batzuetan ados nator noski, beste batzuetan ez. Nolanahi ere horretaz arituko naiz, hau da, Arestiren euskararen gainean, eta Arestiren euskararen eta idazkeraren eboluzioaz, bilakaeraz. Zeren Aresti, zerbait bada, eboluzioa da, etengabeko eboluzioa.

Hasi nahiko nuke esanaz denok dakizutena: Aresti euskaldun berria zela. Baina garai hartako euskaldun berria zen, ez oraingo euskaldun berria. Zerikusi gutxi dute oraingo euskaldun berriak, oraingo gehienak, edo batzuek behintzat, ordukoekin. Orduko euskaldun berri guztiak, edo gehien-gehienak, euskaltzaleak ziren, euskaltzale petoak. Aldiz, gaurko euskaldun berri asko –ez denak noski, baina bai asko nire ustez– ez dira euskaltzaleak, euskaldunak lanorduetan dira eta lanorduetatik aparte erdaraz bizi dira; eta euskaldungoak ezer gutxi irabazi du horrelako euskaldunekin. Baina Aresti beste garai bateko euskaldun berria izan genuen. Guk, gerra ondoan-eta, euskaldun berrien uzta oparoa ezagutu genuen: Xabier Kintana, Andolin bera eta beste hainbat, eta batez ere Txillardegi eta Aresti. Txillardegi eta Aresti, une jakin batean, bakoitza bere aldetik edo bere arloan erabakigarriak izan ziren bi euskaltzaleak, euskaldun berriak ziren biak. Uste dut sintomatikoa dela hori, eta nik hori behintzat markatu nahi nuen.

Beste puntu batera pasatuz, gogoan izan behar genuke non eta noiz euskaldundu zen Aresti, hau da, *postgerra* latzenezan eta Bilbon. Askoz geroagoko poema batean, Bilboz ari dela “esto no es Euskadi, esto es España” edo “esto es Castilla” dio, behin baino gehiagotan oso oker ez banago –oso lotua zuen Arestik aberria hizkuntzarekin–. Beraz, Euskal Herritik aparte ikusten zuen toki batean ikasten du euskara Gabrielelek. Eta garaiari buruz, gauza jakina da egunero Bizkaiko Liburute-gira joanaz Axularren *Gero* osorik koptatu zuela, eta orobat Altuberen *Erderismos*. Garaiaren adierazgarria da euskara ikasteko horrela ibili beharra. Orain jendea kexatzen da hau eta hori eskas ditugula, eta ez zaie askotan arrazoiak faltako, baina gerra-

ondoko garai haietan ez zegoen ez ikasteko metodorik, ez irakaslerik, ez euskarazko libururik, zaharrik ez berririk. Ez zegoen ezer. Hainbat urte geroago, 1960 inguruan, euskaltzaletu nintzenean, aitaren gerra aurreko Arrigarai-Ataunen gramatikarekin hasi behar izan nuen euskara sakontzen. Garai eta egoera horretan bihurtzen da euskaldun berri, bihurtzen da euskaldun Aresti. Dena dela eta bestalde, ohartaraztekoa da Arestik kopiatzen dituen liburuak Axularren *Gero* eta Altuberen *Erderismos* direla hain zuzen.

Arestiren lehen euskara, Joxek esan berri duen bezala, sabindarra da, halabeharrez beharbada, giroa horrelakoa baitzen. Badu olerkiren bat Aresti'ar Gabirel-ek izenpetua. Baina horrekin batera bere lehen poemetan, hau da, bere lehen idazlan argitaratuetan oso mirandetarra agertzen da, Krutwig-ek hasi eta batez ere Mirandek garatu zuen segiziokoa esan nahi dut; hau da, oso poesia ikasia, oso euskara landua. Adibidez, horrela ari da publikatu zuen lehenengo poemetako batean, *Dance dans la priere* izenekoaren bukaeran:

Barkatu
 ezarren, eznaun ukatu;
 Bulharrean ganibetez badut dolatu
 Marrazkiatu

Haizena,
 Egiaz, hire izena,
 Hireganat irioiten den bide zuzena,
 Loretiena;

Oinhaze,
 Deitore guztien hatse
 Gogoetaz, heiagoraz, auhenez ase;
 Zama-pairatze...

Ez dakit zer irudiko zaizuen zuei orain, baina 1954 inguruko euskal irakurleentzat, hizkera hori *txinoa* zen, Miranderentzat eta beste hiruzpalaurentzat izan ezik hau *txinoa* zen: *marrazkiatu*, *irioiten*, *deitore*, *heiagoraz*... alde batetik, ortografia bestetik... Bestalde, poema T. S. Eliot-en aipu batekin hasten da. Egingo nuke ez zirela dozena erditik pasatzen, orduko euskal irakurleen artean, Eliot nor zen zekitenak.

Lehen etapa horren ondoren, 1957 inguruan, beste hizkera bati ekiten dio, beste muturrera doala esango nuke. Hizkera berri horren puntu gorena *Bizkaitarra* izeneko poema sailean dago. Etapa berri honetan bizkaieraz idazten hasten da, baina lehengo jardunaren beste muturrean, hau da bizkaiera herrikoian, eta peioratiboki erabiltzen dut hemen *herrikoi* hitza, “Herriak hitz egiten duen moduan” idazteko tranpan erortzen baita une batzuetan. Bada pasadizo bat, aldaketa horren zergatik gisa Arestik berak kontatzen zuena, gertatu omen zitzaiona, baina nire ustez asmatu zuena: joan omen zen garai hartan Bizkaiko baserri batera eta tortilla bat eskatzeko esan omen zuen “lursagarrezko arrautzopil bat” nahi zuela; eta han ez zekitela alemanez erantzun omen zioten; orduan konturatu omen zen ikasi zuen euskararen faltsokeriaz. Bueno...

Nolanahi ere, bigarren etapa horretan tankera honetan idazten du, gero bere emazte izango zen Meli-ri eskaintzen dizkion bertsoetan, adibidez:

Iretargi barriak
Eztauko argirik
Ez gaugerdiko
Eguski otzak
Berorik
Ezta egongo
Bizkai maitea
Iños penadu
Bagarik

Alan diragutsue
Gabriel Arestik

Orienteko perlea
Nobia neurea
Biotzeko puskea
Melitxu maitea
Non da zure legea
Ta karidadea
Eukizu piedadea
Egin mesedea.

Bizkaiera herrikoia, ez bizkaiera klasikoa beraz, bizkaiera dialektala. Arestik berak letra etzanetan ematen dituen lerroak, Barrutiaren “Acto para la Nochebuena”, berak berraurkitu zuen XVIII. mendeko teatro lan herrikoietik hartzen ditu.

Bilakaeraren barruan lehen sintesi bat egiten du Arestik 1959 inguruan aurreko bi joeren artean, *Maldan behera* izeneko poema luzean. Niretzat *Maldan behera* da Arestiren poesia lan “onena”, baina alde batera utzi behar dut kontu hori orain. Segi dezagun sintesiarekin:

Orain hemen nago, eremu latz honetan.
Nire gurariak galdurik, lur hauetan
 arbola adar-gabeen parena naiz orain.
Landare zekenak baitaduzka eremuak,
erratzak harean, haitzetan kalamuak,
 nire arima dago mirari baten zain.

1999ko hizkera ematen du, euskara batua *avant la lettre*, ortografian eta morfologian ez ezik, baita hiztegiaren orekaren eta jardunaren doinuaren aldetik ere. 1999ko euskara onaren pare-parekoa da. Eta 1960 inguruan, euskarazko jardun idatzia, egungo ikuspuntutik, agertzen zuen itxura benetan nabarra kontuan harturik, *Maldan behera*-ko euskara hau mirari bat da, edo profezia moduko bat, nahi duzuen.

Ondoren, Arestiren poetikak bira egiten du, *poesia soziala* esan zitzaien estilorantz. Poesia mota honek, noski, hura bideratzen zuen hizkuntzan eragina izan zuen, halaberrez. Poesia era berri honetako lehen emaitza *Harri eta Herri* liburua da. *Harri eta Herri*-n, funtsean, *Maldan behera*-n ikusi dugun euskara mota bera dugu, baina poesia sozialera egokitua, nolabait esan; hau da, hizkuntza laua eta lañoagoa erabiliaz oro har, nahiz eta liburuan hizkuntza erregistro aniztasuna nabaria den, eta nabaria oso, orobat, bertsolaritzaren eragina, horrek dituen alde on eta txar guztiekin.

Harri eta Herri-ren garrantzia, haren zabalkundearen, difusioan datza, are hizkuntzaren aldetik. Pentsatu behar duzue Arestiren aurreko obra guztia, oso zabalkunde urriko aldizkari erdi klandestinoetan gauzatu zela eta, beraz, ez zuela ia oihartzun sozialik izan. Baina *Harri eta Herri* liburu gisa agertzen da, eta gainera orduko euskal liburu sorta ezagunenean, *Kuliska Sorta*-n. Hortaz, Arestiren euskararen *subertsibotasuna* euskal irakurleria osora hedatzen da, euskal irakurleria erre- alera, baina baita euskal irakurle izan zitekeenera ere: izan ere, garai hartako eus-

kaldun askok irakurri zuten lehen euskal liburua *Harri eta Herri* izan zen. Arrakasta handia izan zuen liburua. Arestik berak esan zuen behin baino gehiagotan argi-taldarikoek, Itxaropenakoek, tranpa egin ziotela, eta aitortzen zuten baino askoz ere gehiago saldu zituztela *Harri eta Herri*-ren aleak, eta seguru asko hala izan zen.

Bestalde, nik neuk nire esperientzian, *Poemagintza* ondu nuenean, gogoratzen naiz niretzat *Harri eta Herri* erreferentzia puntua izan zela, literaturan, baina baita ere –hobeki esan, batez ere– hizkuntzaren aldetik: zer esan zitekeen eta zer ezin zen esan, guretzat erabat berria zen euskara hartan, *Zeruko Argia*-ko euskaratik hain bestelakoa zen euskara hartan, edo Nemesio Etxanizen edo Jon Etxaideren euskaratik hain bestelakoa zen euskara hartan.

Harri eta Herri eta kideko poema liburuen ondoren, eta euskara batuaren gizarteratzearen ondoan, Arestik beste bide bat irekitzen du 1970 aldean, niretzat bederen bere ibilbidean atzera pauso argi eta garbia dena. Gogoratzen naiz lehenago, 1968an, Euskaltzaindiak euskara batua onartu zuen Arantzazuko Biltzarraren bukaera ekitaldia amaitzean, nola esan zigun berarekin geundenei “gaur egun beltza da euskararentzat”. Hori entzun genuenean *boutade*-tzat hartu genuen, baina hitz horiek bazuten funtsa. Urtebete lehenago, 1967an ortografia berria proposatu zuen *Euskal Harria* poema liburuan, *ts*-ren ordez *x* eta *tz*-ren ordez *c* idaztea proposatuz, besteak beste. Eta 1970 inguruan Leizarraga aztertzen hasten da, eta euskara batua –literatur euskara batua– Leizarragaren euskara izan behar duela erabakitzen du. Leizarragaren hiztegia eta aditza argitaratzen ditu *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian, eta ortografia berri bat ontzen du “ABC HEVSKARAZ edo erranac scribitzê eta scribatuac iracurtzê ikastê ari direnei proposatzê çaitzê reglac” idazkian ematen duena. Idazki hori 1973 ingurukoa da eta Jon Juaristik *T. S. Eliot euskaraz* liburuan argitaratu zuen. Ezin adierazgarriagoak dira idazkiaren bukaera hitzak, bere ahaleginaren zergatikoa ezin hobeki adierazten baitute: “Heuscal-Herriâ situâ-tione chaotico bat dago, chaos hândigo batequî sûsitu behar duguna”. Leizarragaren aukera egiten du, harena delako bere ustez “euskararik intellectualena” eta “el técnicamente más apto” garai hartan esan zuenaren arabera¹.

Gero, praktikan, ahal duena egiten du. Gehienetan gainerako idazleek bezalatsuko euskara erabiltzen du ortografiaren aldetik, baina jardun arkaikoagoa nabari zaio. Ahal duenean, aldiz, Eliot-en *Lau quarteto*-en itzulpenean, horrela dihardu:

¹ Esan dezadan, bidenabar, zer pentsatua ematen duen liburua dela T.S. Eliot euskaraz izeneko hau, 1983an argitaratu zena: Jon Juaristik apailaturiko edizioa da eta G. Arestiren, J. Sarrionaindiaren eta J. Juaristiren itzulpenak biltzen ditu...

Spirituzco munduaren inoperantia;
 Hau da bide bata, eta bestea bera da,
 Ez movimendu baina movimenduaren abstentione,
 Dembora passatuaren eta dembora futuroaren
 Bere bide metalicoetan, appetentiaz
 Mundua movitzen den bitartean

Ez dut nik itzulpenaren bikaintasuna ukatuko. Baina uste dut hain dela begien bistako kontua bide hori inongo eraginkortasunik gabea dela erabateko euskara estandarrarentzat, non ez baitut beste ezer gaineratuko.

Zerk eragin zion aldaketa hau? Arrazoiak bat baino gehiago izango dira, seguru asko. Bi aipatuko ditut, besteak beste. Bat, argi eta garbia, bazuela halako herabe bat gehiengoaren bidea ibilzeko; gehiengoa bide batetik abiatzen bazen, Aresti urduri jartzen zen eta berak, badaezpada ere, beste bide bati ekiten zion.

Aipatu nahi dudan bigarren arrazoa gorabehera handiagokoa iruditzen zait. Aresti, oro har eta kontresanak kontraesan, esentzialista zen hizkuntza kontuetan. Orain dela gutxi argitara den euskal historiako liburu bat honela hasten da “herriek ez dute esentziarik, herriak historia dute”. Era berean, nire ustez, hizkuntzek ez dute esentziarik, historia dute. Esentzialistek kontrara pentsatzen dute. Azkue esentzialista zen, eta ez gartzetan ondu zuen gramatikan bakarrik; Arana aldiz, ez zen funtsean esentzialista: garbizalea bai, baina ez esentzialista. Eta Arestik, kontraesanak kontraesan, berriro diot, bazuen joera esentzialista argia: azken batean, Leizarragana jotzea, betiko euskara ateporalera hurbiltzea da Arestirentzat, eta Leizarragaren nagusitasuna azaltzen saiatzen zenean argudio filologikoak erabiltzen zituen, inoiz ez komunikatiboak. Badira bere esentzialismo horren beste zantzuak ere, adibidez Mitxelenaren *Fonética histórica vasca*-n oinarri hartuz “berreraiki” zituen hitzak, *moneta* esaterako: bai Leizarragak, bai Axularrek, bai Txirritak eta bai gainerako euskal idazleek *moneda* erabiltzen zuten; halere Arestirentzat euskal forma *moneta* “zen”, Mitxelenaren birreraikitzearen arabera forma hori ateratzen baita...

Baina azken etapa honetan, besteetan bezala, gauza batek salbatzen du Aresti: hizkuntza intuizioak, sena linguistiko izugarri batek. Talentu ikaragarri hori dela medio gaınditzen ditu Arestik kontraesan linguistiko eta literarioak, eta obra koherente eta fidagarria ematen du, bai literaturaren aldetik eta bai, hortaz, hizkuntzaren aldetik. Zeren arazo tribialak eta hutsalak alde batera uzten badira, idazte kon-

tuan arazoak ez dira inoiz gramatikalak izaten; azken batean, gorabehera ustez gramatikal horiek ere literatura arazoak dira halabeharrez.

Joxe Azurmendi. ARESTI: HERRI / ERREALITATE BILA. Arestiren ekarpena eta eragina da gure gaia, eta bost foliotan errenditzeko (“gehienez”). Euskal literaturan, Arestiren influentziaz baino gehiago, Arestiren omnipresentziaz hitz egin beharko genuke. Arestiren ekarpenaren eta eraginaren historia, etenik gabeko haren presentziaren historia da, agertu zenetik eta orain arte.

“Nire grazia [Aresti] da ta/ poeta naiz ofizioz”. Agertu zen eta egundoko harri-dura sortu zuen bazter guztietan. Ez dut esaten maitasuna edo sinpatia; batzuek maitatu zuten, beste batzuek gutxiago. Inor ez zuen utzi indiferente.

Beraz, hori da lehenengoa: Gabrielen aurreneko ekarpena bere pertsonalitatea izan da; ezusteko bere agerpena gure gizartean eta gerraondoko gure historian.

Noski, Aresti diferenteak daude: bere langiletasun porrokatu eta dedikazio hura dago (poesia, nobela, antzerkia, itzulpenak, ipuinak, hiztegiak, azterketa filologikoa: hots, urte gutxian burutu duen obra ezberdin ugaria); bileretako bere tenperamentua eta sozialki jokatzeko paper eragilea, batzuen animatzaile eta besteen probokatzaila, etab. Baina, baita ere, prosista dago eta poeta dago. Poetarekin geratuz, bada, pertsonalitate konplexu global horretan bi alderdi bereziko dut, literaturaren esparruan geratzeko eta, zehazkiago, haren poesiarekin zerikusirik izan duten aspektuetan.

1. Gabrielen lehenengo aportazioa Gabriel Aresti bera fenomeno literario gisa izan zen: Bilboko poeta bat, bere nortasun batailari guztiz propioaz poeta bezala, hau da, bere Niaren kontzientzia eta bereziki “ni poeta naiz” ziurtasun eta harrotasun ezohiko supituaz (apaltasun ez injustifikatu aspaldiko batek, debekatu egiten zuen euskal giroan inork bere burua poetatzat eshibitzea). Gehi bere euskara zoragarri, sublime eta bitxi (euskaldunberri) artekoa. Bere kultura poetikoa. Sentsibilitate berekia. Bertsoak ez ziren bertsoetan aritzeko lotsagabekeria: poema harrigarriak asmatuz (“Bizkaitarrak”); edozein esperimentu entseiatzen dibertitzeko ausardia (“Tobera”), nor eskandalizatzen zuen axolarik batere gabe, etc. Denok gara berriak hasieran; baina Arestiren berritasuna –euskal munduan–, bera zen eta egiten zuen guztia ohigabekoa zen. Ahoskera bezala bere frasea, are gehiago iritziak eta gustua, dena zuen nolabait ohizkanpokoa. “Exotikoa”, esango nuke. Behar bada horregatixe, sekulako arrakasta eta euskal mundutxoaren interesik handiena

lehenengo egunetik aurkitu duen autorea izan da Aresti, bere agertze distiratsuarekin agertokitxo hori transformatu duena.

2. Bigarren alderdiak beharbada esandako honekin elkargaitza emango du: Gabriel diferentea zen, oso pertsonala zen, aparte zegoen; baina aldi berean –hor dago paradoxa–, hartzen badugu gerraondoko garapidearen testuinguruan, euskara garbiaren edo batuaren bere gatazkekin, denek denetik egin behar larri haiekin, engagement pertsonal eta politikoeekin, ideien pasioarekin eta sentimenduen purismoarekin, aldi beltz bateko izpiritu gorriarekin hitz batean, ikusten da, bere garaiko produktu eta produktore tipiko-tipikoa dela goitik beheraino, eta garaiarekin batera egin duela bere bide guztia. Gabriel bere garaia espresioa da, pertsona gisa nahiz literato gisa, eta bere garaiko eta bere garaia poesia da harena: bere garaiko minena, esperantzena, ezintasunena; bere garaiko bilaketa linguistiko eta formalena, krisiena, antsia politiko eta ideologikoena. Eta lehenengo momentutik arrakasta izan badu, esan bezala, aro batek harengan bere boza segituan ezagutu duelako izan da. Beharbada bere krisia ere harengan ezagutu duelako (eta hori ez dio barkatu). Gabrielen handitasuna ez da bilatu behar haren garaiarekiko oposizioan, garaiarekin identitate hertsienean baizik. (“Nire grazia Joane da ta / hau da deabrukeria / Niri begira baitago hortxe / gure euskaldun gazteria”). Laburbilduz esateko: Arestiren traiektoria, Arestik bere obran egin duen bidea, bere inguruarekin eta garaiarekin egindako bidea eta traiektoria da, euskaldun errearen bila, egiazko Euskal Herriaren eta egiazko errealtatearen bila, honek zirkunstantzia gogor haietan inplikatu duen guztiarekin (krisi erlijioso, politiko, etab.). Beraz, orain, gauden tokian bagaude, Arestirekin gaude.

Hori horrela, gero, periodo diferenteetan ekarpen konkretu diferenteak egin dituela esango nuke. Espazio murriz honetan ezin mintza gaitzke murriz baino. Eskematizatuz, oso orokorki, errealtatearen bilaketa hirukoitz batek osatuko luke Arestiren obraren zentzua, bere garaiko ahalegin handiaren barruan:

- Poesia errearen bilaketa
- Euskara errearen bilaketa
- Euskal Herri errearen bilaketa

Hirurak nahastu egiten dira eta, askotan, Arestik bere buruarekin edo lagunekin daraman borroka pertsonalarekin korapilaturik ageri dira, metaforak eta sinboloak aldi berean erreferentzia diferenteetako zeinuak bihurtzeraino (haritz/Gernika-ko Arbola/harizti/Aresti/Euskal Herri berak, adibidez).

Arestiren eboluzioa (ideologikoa, poetikoa) herri/errealitate bila eginiko bidea bezala interpreta genezake. Euskal Herri errearen bila, aranismo estrikto batean hasi eta ezkerreko posizioetarantz lerratu da, urte haietako ezkerre- nahi arruntaren barruan beti. Etzaizkigu Arestiren ideologia gorabeherak bereziki interesatzen. Bai, Arestiren interes poetikoa “Godalet-dantza” ia santulario enaiz-banaizko estrainotik “Zeren Leo” bezalako gaietara pasatzea, bidean hizkera poetikoa bera ere errotik eraldatuz, errealtatearen bila martxa luzean.

Azken buruan denak bat egiten du, zirkuluan bezala. Euskal Herri erreala euskal herri erreala da: euskaldun errealak. Euskaldun erreala –edozein gizaki bezalaxe, noski– bere hizkuntzan ikusten dizu Arestik: euskara da Euskal Herriaren funtsezko errealtatea. Baina zein euskara? (Literaturaz ari gara: ez politika edo sozio-linguistikaz).

- Bertsolarien euskara. Arestik bertsolari edo koplarien (edo Barrutiaren) hizkeran bilatu du euskararen dotoretasuna, fintasuna, grazia –bere hitzak ari naiz esaten–, bizitasuna eta aberastasuna ez aipatzeko. Garbizale eta pseudokulto guztien aurka, “bertso euskera berezian” ikas dezake literaturak euskara erreala, hots, herrikoia eta landua berdenboran; teatroan, adibidez, erabil daitekeen bakarra.


- Baina bertsolariak ez dira hizkuntzaren maisuak bakarrik. Bertsolariak herri xume langilea bera dira. Proletalgoa dira. Berak dira euskal herri erreala. Behin gaztelaniaz idatzi zuenez, Orixek ikustarazi omen zigun “que nuestro pueblo auténtico tenía sus poetas auténticos, que el campesinado proletario que surgió fiel a los modos tradicionales de vida, tenía una literatura oral única en el mundo (...). El bertsolari nos dió su euskera sin prejuicios, válido para cualquier circunstancia de la vida, una lengua fresca, hermosa, cálida y expresiva”.

Honela, bertsolarien baitan, hizkuntza errealak, herri errealak eta poesia errealak bat egiten dute. “Bertsolariak dira euskaldun poeta erritar bakarrak, erriaren izaerarik egiazkoenetik ateratzen direlako, eta gañera gure erriaren istorian zear sortu dan eskola batean artzen dabelako parte”. Beraiek ditugu, hortaz, egiazko poesiarren maisuak ere, “pseudo-kulturazko pseudo-poesia” orotatik libre. Egin nahi dugun poesia errealak “herriaren poesiatik, bertsolarien poesiatik eta euskaldun [herritar] kulturatik” ikasi beharko du, hortaz.

- Eta zer duda, Gabrielelek poesia erreala egin nahi zuela. Mailua. Ez burgesia gozarazteko litxarrerria. “Nik egin nahi nitek herrirako poesia bat. Gauza aspergarria duk, nire poesiak burges batzuren dostaketa direla jakitea. Nik ikusten diat Donibaneko deserrian euskaldun burges deserri- eta abertzale bat nola bihurtzen

den etxera, eta bertan eguneko lanetik deskantsatzeko, bere whiskia edaten duen bitartean, bere Bachen musika entzuten duen bitartean, Arestiren Bizkaitar bat irakurriko dik. Eta honek, laguna, narda egiten dirautak”.

Gabrielen garapideak beti zerbaiten kontra izan ohi ziren. Zeren kontra batzuk –linguistiko edo politikoak– apenas egongo da beste behin gehiago seinalatu beharrik: bertsolaritzan bertan, Basarriren aurka, etab. Ordea bertsolaritzaren errebinkazio honetan, agian zilegi da, lehenagoko bere idealismo baten aurka erreakzio bat sumatzea ere. Kasu horretan bere hastapen propioak zuzentzera etorriko litzateke, besteak beste. Euskaran, Leizarragarengandik Xenpelar eta Txirritarenganako eboluzioa; poesian, Baudelairegandik Celayaganakoa. (Aurrena, eta oinarritzkoa,



Luis Villasante eta Joxe Azurmendirekin

hizkeraren eboluzioa egon da: aranismoetik Leizarragaren elegantzia aristokratikora, bertsolarietara azkenik. Gero etorri dira eboluzio politikoa eta poetikoa). Beraz, hastapenetatik urrunduz, poetika formalean ere. Eta uste dut, honekin ja poesia sozialaren gai famatuan gaudela.

Europako mendebaldeko literaturan, konpromiso sozialaren uhina, aldizkari surrealistekin zabaldu da, 30. urteetan. Guri bultzada hori beranduago heldu zaigu, erdizka, eta gaztelaniazko artekoen eskutik: Celaya, Angela Figuera, etab. Ezaguna da surrealismoak urte haietako galgal iraultzaile gorria islatzen duela (sinpatia

komunistak). Baina psikoanalisi orduantxe Parisen edukitzen ari zen arrakasta sozial eta kulturala gabe ere, inkontziente ilunaren deskubrimenduarekin, surrealismoa ez da ulertzen. Zer izan da mogimendu hori? Max Ernst edo Salvador Dali dira surrealistak pinturan. Surrealismoak inkontzientearen askapena bilatzen du. Errealitatea atzeman, ez kontzeptu eta logika tradizionalaz, hots, adimenarekin hura zatika ebakiz eta klasifikatuz, baizik haren barnera ni osoa askatasun osoan pulunpa murgilduz. Esperientzia eta ametsa urtu, erreala eta imaginarioa, iraultza eta patua: horrela artea “esperientzia totalaren” lekua bihurtzen da, praktika bat bilakarazten da poesia (“pratiquer la poésie”). Medio bezala surrealitek idazketa espontaneo proposatu dute, “idazketa automatikoa”, logikak kontrolatu gabea, inkontzientearen espresio librea —“un langage sans réserve”—, gizakia eta errealitatearen arteko harremana ez dadin tipo arrazionalako lineala soilik izan. Horrela bakarrik erakutsi ahal izango digu munduak bere barneko miragarritzkoa, ezkutua, bere etengabeko metamorfosia guztiarena guztitan.

“Poesia sozialarekin” ez dugu beti edukia edo ideologia ulertu behar, baizik batez ere forma, espresioa. Arestik, beti bidean, *Maldan behera*-n baino gehiago *Harri eta Herri*-n erakusten duen espresioaren askatasun eta heldutasunaren gailurra. Edonondiko ideiak bereganatzeko eta originalak bihurtzeko Arestik zuen ahalmen partikularrarekin, ez du lan handirik izan surrealismo hau “logikarik gabeko” koplarien tradizioarekin (Lekuona, Oteiza) eta bertsolaritzarekin ezkontzeko —ezkondu: ez esposatu bakarrik, berak uste zuen berezkuntzarekin esateko. Aresti, poliki-poliki “liberatuz” joan da (obra batean konkretuki baino gehiago, obran zehar ikusten da). Ez tematikoki bakarrik, batez ere formalki eraberritu da: euskararen eta espresioaren liberazioa; bertso librean idatzi (bertso librearen etsaia izan zenak!); irudimena ez dirijitu, utzi jare berak nahi duena dabilela, zoro, superrealista. Hemendik sortu da Arestirik tximistazkoena, harrigarriena —eta zailena ere. Ez da propioki “hermetikoa”: zoroa da, zoragarria. Librea. Bere poesia jario bat da, ez eraikuntza bat. Ez du egiaz garapide bat xede aurrakusi edo helburu batera. Ibilua besterik ez. Irudi-unibertso global bat da, kreatzen duena (jada *Maldan behera*-n). Sinboloek berek ez dute balio edo esanahi estrikorik. Inolako sentido arrazionalak barik, askotan errimaren bilaketa hutsak gidatzen du ideia. Irudi asoziaziorik absurduena baino ez da beste bertso asko. Eta, hala ere, azkenean, Gabrielen bertsoa mailu epiko bat izaten da, konkretu eta indartsu. Edo biola liriko bat, Orfeoren mundubarru ilun sorgintsutik limurkor gure inkontzientean xuxurlatzen zaiguna. Surrealismoaren eta koplariaren konbinazioa. Superrealista.

Aresti, agudo zebilena, momentu batean gelditu egin da eboluzioan. Uste zuen aurkitua zuela jada Euskal Herri erreala –“un auténtico, real, tangible pueblo vasco”–, berak esango duenez. Euskara erreala ere agian aurkitua uste zuen euskara batuarekin. Eta, beharbada, bilatzen zuen errealismo poetikoa ere, aurkitua zuela, pentsatu du, *Harri eta Herri*-z gero. Beharbada –beti zalantzez esateko– faktore sozial, politiko eta pertsonal batzuek ez diote lagundu, forma berriak esperimentatzen jarraitzeko. Haren errealismotik A. Urretabizkia, Lete, J. Zulaika, etc. –aspalditxo beste leku batean esana dagoenez–, euskal poesian errealismo magiko berriak sortuz joan dira, sortzen ari dira, gaur arte.

Egun, herriaren, euskararen, poesiaren gure pertzepzioa –kulturan jada nagusitua–, hau da, gure errealitatea, Arestirena bera da funtsean.

Andolin Eguzkitza. Egia esan, beharbada beste istorio horietako bat da, baina elkarrizketa gogoangarri batean, Gabrielelek kontatu zidan zelan lehenik, euskara ikasten Bilbon argitaratutako “Euskaltzale bazkuna” metodoarekin hasi zen, eta urtebete pasa eta gero konturatu zenean hura ez zela euskara, beste hiru urte “deskasten” ibili zela.

Baina orain galdera bat proposatuko dut guztioi zuzendua, Ibonek aipatu duen gogoeta bat harrapatuta. Ibonek esan duenez, Gabrielelek zeukan trebetasunetako bat muturretatik muturretara joatearena zen, eta hori, alde batetik, seguru asko zentzu linguistikoa aipatu du, baina bestetik baita ideologikoa ere. Bada, lehenengo egunean, Bilboko aurreko jardunaldietan, Atxagak aipatu zuen bere ustez Gabriel Arestik idazle moduan zeukan bertute bat –eta horretarako *Harri eta Herri*-n Jurgi Oteizari eskainitako poema ekarri zuen gogora– zera zela, zeukan trebetasuna tonu-aldaketak egiteko, hau da, poema berean ahots desberdinekin hitz egiteko. Ez dakit lot daitezkeen elementuak diren ala ez, baina zer deritzozue zuok horri?

Iñaki Aldekoa. Nik poema horri buruz esango dut aspalditik ulertu izan dugula poema hori Jorge Oteizari egindako omenaldi gisa, eta horrela planteatuta dago, Jurgi Oteiza profetari eta abar. Baina izugarriak ere esaten dizkio. Esaten dio “motel, hi ez haiz enteratzen mundua nondik nora dabilen, hor hago Aginako kromlecharekin oso ondo pasatzen, baina hemen, Bilboko infernu honetan, gauzak oso gordin daude” eta sekulako salaketa egiten du Oteizaren metafisikaz. Alegia, Oteizaren metafisikaren aurrean, Arestik diotso “hemen historia gogorra da”.

Ibon Sarasola. Oteiza atera denez gero, nik –Arestirekin elkarrizketan– inpresioa dut ez zuela batere gogoko –poemetatik aparte–, eta hain zuzen esenzialistatzat jotzen zuelako. Nolabait esaten zuen, “arabiarrek edo hilotz bat berpizten badute eskubidea dute halakoetan ibiltzeko, baina guk hilotza ere ez dugu”. Alegia, kromlech-araino joan behar badugu, hor ez dago ezer atzean, eta bide hori ez zitzaion gustatzen, nik uste. Bere kontraesanetan esentzialista bat zelako Aresti, baina ez horrenbeste. Eta nik uste dut *Quosque Tandem*, oso liburu esentzialista zelako, gure artean izan zuen arrakasta izanda, berari ez zitzaiola gehiegi gustatzen.

Andolin Eguzkitza. Joxe, zuri galdera bat, *Harrizko Herri* hau, Gabrielen azkenengo liburua dela eta; ondo ezagutzen duzu ezta? Nik ondoko iritzia entzuna dut eta zure iritzia ere jakin nahiko nuke horri buruz: batzuk esaten dute momentu horretan (liburua, hain zuzen, hil baino urtebete lehenago argitaratzen da gutxi gora behera) joera edo norabide horretan, Gabriel poeta moduan agortuta zegoela. Alde batetik, pentsatu behar dugu 41 urterekin zein obra izugarria egin zuen, baina hala ere –diote horiek– norabide horretan agortuta zegoen, ez zeukala gehiagorik ematerik arlo edo joera horretan. Zer deritzozu zuk horri?

Joxe Azurmendi. Nik uste dut gauza bat zegoela sekula agortzen ez zena, eta hura zen Gabriel bera. Baina moduak agortzen dira eta nik uste dut hain zuzen *Harri eta Herrin* saiatu duen moduak bere onena *Harri eta Herrin* eman duela, eta gero datozen “Harriek” Aresti geniala zelako ez dira liburu txarrak, baina ez diote ezer gehitzen *Harri eta Herrin* egin zuen errebelazioari, hori da nere inpresioa. Nik daukat baita ere ustea –egia esan, ni ordurarte berarekin harremanetan egon nintzen, eta orduantxe jada ez dut gehiago harremanik izango– nik daukat inpresioa, berak ere momentu batean bazeukala buruan beste bide batetik sartzeko asmoa, edo beste saio bat egitekoa, baina hurrengo urteetan asko konplikatu dira gauzak, bai politikoki bai bere munduan, pertsonalki eta abar, eta ez du egiten beste saio hori, edo nik ez dut ikusten behintzat egin duenik, eta Karmelo eta Josu Landak publikatu duten edizio horretan ere ez dut ikusten beste saio berri baterako gogorik. Bai, uste dut, Gabrielelek periodo horretan gehiegi idatzi du, urte pare bat lehenago moztu egin behar zuen eta beste saio bati ekin behar zion nere ustez. Noski, hau horrela esatea tontokeria bat da, zer egin behar zuen edo ez zuen, baina konparatzen direnean bere obrak, bere hiru “Harriak”, eta gero publikatu dituztenak, batek esaten du: bai, honek, nere inpresioa da, modu honek emanda zeukan emateko

zuena. Eta zein modu da hori hain zuzen? Nik uste dut hain zuzen *Harri eta Herri* ez dela derrigor eten bat. Diferentzia handiak daude eta konbertsio bat ere bada, nolabait, baina *Maldan Beberatik Harri eta Herrira* batez ere dagoena, nik uste, gehiago da heldutasuna etena baino, eta libertate bat, bestean oraindik ez duena, eduki nahi ez duena beharbada, baina ez duena, eta beraz nerretzat heldutasun handia, espresiorako libertate handiarekin, mundu sinboliko horretan naturaltasun handiago bat aurkituta eta abar... *Harri eta Herrin* dago.

Iñaki Aldekoa. Nik gauzatxo bat esan behar dut. Nik Joxeri gauza asko hartu dizkiot baina gauza askotan ez nator bat berarekin. Esan duzunarekin ados nago, agortzearen ideiarekin. Dena dela, nik uste dut diferentzia handia dagoela *Maldan Beberatik Harri eta Herrira*. Azkenean konkista bat da, esan duzun moduan, baina beste poeta sozial askorentzat ere konkista da. Blas de Oterorentzat berarentzat ere konkista handi bat izan zen, hasi poesia neoklasikotik, gero jarraitu poesia existenzialistan, neoerromantikoan hurrengo, eta azkenean, kontxo, harrapatu zuen tonu zuzen hori. Lehen esan duzu Gabrielelek Celaya eta Figuera ezagutu zituela. Egia da bi horiek ezagutu zituen lehenago, baina nik uste dut Gabriel Celayak ez zuela berotzen Aresti, nik uste dut berotu zuena Otero izan zela, Oteroren ezagutza. Baina kurioa da prozesua, ezta? Oterok 1955an *Pido la paz y la palabra* atera zuen, eta harritu egin zuen Aresti, baina Gabriel oraindik ez zegoen inondik ere prestatuta horren antzeko gauzarik egiteko. Alegia, oraindik berarentzat “generación del 27”ko poetak ziren erreferentzia eta Salinas defenditzen zuen beste guttien ginetik. Eta 1960an Donostian eman zuen hitzaldian esaten du “ondo mutilak amaitu da istorio hau, hemen poetarik handiena Otero da”. Baina oraindik 1959an, (apuntatu egin dut badaezpada, zeren banekien honelako konturen bat aterako zela) Alberto Onaindiari idazten dion gutun batean esaten du: “Buruan daroat estudio bat T.S. Elioten gainean. Honen atzean Baudelaire, Rilke, Wiltman eta Salinas estudiantuko ditudaz”. Eta oso argi ikusten da nola 27ko belaunaldi horren pisua ginetik kentzea hainbeste kostatzen zitzaion, zeren Salinas gainean zeukan, eta Oterori buruz Tauerri idatzitako gutunetan zioen: “Blas de Otero izugarritzko poeta da” eta hau eta bestea, baina berak oraindik ezin zuen horrelako gauzarik egin. Hori 1960tik aurrera gertatzen da, Donostian emandako hitzaldiaz geroztik.

Andolin Eguzkitza. Utzidazu momentu bat moztzen, Iñaki, zeren eta lehengo egunean garai hartako beraren lagun minak, Andoni Kaierok, Otero dela eta ez dela,

zera esaten zuen, bere ustez, Arestik Otero ezagutzen duela, Otero miresten duela, baina Oterok ez daukala berarengan eraginik, hori ez dela posible kronologikoki. Hori da Kaierok uste duena, eta ez da ahaztu behar garai hartan oso lagun minak zirela, elkarrekin irakurtzen zuten pertsonak zirela, esate baterako, berak kontatzen du nola *Maldan Behera* idatzi zuenean, Nietzsche elkarrekin irakurtzen ari zirela. Desafio moduan, nola erantzungo zenioke Kaierori?

